

4. DIRU-SARRERAK:

Jubilatu guztiak egoera berdinean sukaldatuko dute, prezio, menu... berdinarekin, egunean 3 orduz lan egingo dute, eta horrek denbora emango luke egunean 5 menu gutxi gora behera egiteko. Horrek esan nahi du, autonomia erkidego bakoitzean egunero 250 menu egongo liratekeela, menuak 15-20 euro balioko du (prezio dinamikoa menuaren arabera), bidalketa-gastuak kontuan hartu gabe, izan ere, hau bakoitzaren kokapenaren arabera izango da.

Harpidetzarako aukera emango dugu, hau da, astelehenean asteko menu osoa ordaintzeko aukera edukiko dute. Gutxi gora behera, 119 euro izango litzateke baina harpidetuta egonda %20eko deskontua izango dute beraz, 95 euro ordainduko lukete. Beste aukera bat hilabetea 15 menu kontsumituta 255 euro izango litzatekena, harpidetuta egoteagatik 204 euro ordainduko lukete.

Publizitateari dagokionez, sare sozialetan kontu bat edukiko dugu (tik tok, instagram eta Youtube) astero menua han argitaratzeko eta gure aplikazioaren berri emateko. Gainera, kaleetan kartelak jarriko ditugu jubilatuen argazki bat jarri eta hauen egoera azalduz.

Enpresa sortzeko inbertsio minimoa 31.000 eurokoa izango da, aplikazioaren garapena eta diseinuak informatiko batek egiteko 1000 euro jarriko ditugu. enpresa erregistratzeko, legezatzeko... 3500 euro eta sare sozialetan egindako publizitatearako 5000 euro inbertituko ditugu. 20.000 euro gordeko ditugu zerbait gertatzen bada.

Gainera, hilabetea furgoneten gasolinarako 750.000 euro inguru gastatuko ditugu. 850 jubilatu eta 1700 banatzaile egongo dira lanean. Jubilatuen soldadak 10 euro orduko izango dira, kontuan izanda egunean 3 ordu lan egiten dutela astean 5 egunez.